

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 40 NEKAZARITZA
Programa: 172400 BASOEN ARAUTZE,
ANTOLAMENDUA ETA
KUDEAKETA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 40 AGRICULTURA
Programa: 172400 REGULACIÓN,
ORDENACIÓN Y GESTIÓN
FORESTAL

PROGRAMAREN MEMORIA

MEMORIA DEL PROGRAMA

I. MEMORIA

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta foru organoen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen arabera Arabako Foru Aldundiari emandako mendi arloko eskumenak Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuak gauzatzen ditu, eta eskumen eksklusiboa du mendien, baso aprobetxamenduen eta basozaintzaren arloan.

Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen otsailaren 9ko Diputatuen Kontseiluaren 14/2016 Foru Dekretuan daude ezarrita haren egitura eta eginkizunak, Arabako Foru Aldundiaren sailak 2023-2027 legeintzaldirako zehazten dituen uztailaren 5eko diputatu nagusiaren 153/2023 Foru Dekretuaren hamargarren xedapena aplikatuz.

Mendien kudeaketak basoen eta basoek hornitzen dituzten baliabideen kudeaketa jasangarria dakar, hala zuhaitzen zurari eta egurrari dagokienez, nola larreei dagokienez, eta hori oso garrantzitsua da abereek zuhaitzik gabeko mendiak, zuhaixka landareak, mulu itxurakoak eta belar landareak, fruituak, onddoak, eztiak, ehiza eta arrantza aprobetxatzeko, besteak beste.

Onura publikoko mendi katalogatuak Arabako Lurralde Historikoak dituen 189.000 hektareako baso azaleraren (zuhaitzia eta zuhaitzik gabekoa) % 78 dira. Azalera horren gainean daude ehiza barrutiak Araban, baina baita lurralde kontserbazioko figurak ere. Hori dela eta, helburu nagusietako bat jabari publikoko mendien kudeaketa da, basoen antolamendurako, plangintzarako eta kudeaketa jasangarrirako tresnen bidez.

Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauarekin bat, basoko jabari publikoa eta bertako

I. MEMORIA

Las competencias en materia de Montes otorgadas a la Diputación Foral de Álava en virtud de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma Vasca y los Órganos Forales son ejercidas por el Servicio de Montes adscrito al Departamento de Agricultura, ostentando la competencia exclusiva en materia de montes, aprovechamientos forestales y guardería forestal.

Su estructura y funciones vienen establecidas en el Decreto Foral 14/2016 del Consejo de Diputados de 9 de febrero, que aprueba la estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura, por aplicación de Dispongo décimo del Decreto Foral 153/2023, del Diputado General, de 5 julio, por el que se determinan los Departamentos de la Diputación Foral de Álava para la legislatura 2023-2027.

La gestión de los montes supone la gestión forestal sostenible de los recursos que éstos proveen, tanto de madera y leña en lo que se refiere a los árboles, como de pastos, aspecto muy importante en el aprovechamiento de los montes no arbolados por parte del ganado, plantas arbustivas, sub-arbustivas y herbáceas, frutos, hongos, miel, caza y pesca, entre otros.

Los montes catalogados de utilidad pública representan el 78% de las 189.000 ha de superficie forestal (arbolada y no arbolada) que ostenta el Territorio Histórico de Álava, superficie sobre la que descansan los cotos cinegéticos en Álava, pero también las figuras de conservación territorial. Por ello, uno de los principales objetivos es la gestión de los montes de dominio público a través de los instrumentos de ordenación, planificación y gestión forestal sostenible.

De acuerdo con la Norma Foral 11/2007, de 26 de marzo, de Montes, el Programa 172400 de

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 40 NEKAZARITZA

Programa: 172400 BASOEN ARAUTZE,
ANTOLAMENDUA ETA
KUDEAKETA

aprobetxamenduak, erabilerak eta azpiegiturak jasangarritasun irizpideen pean behar bezala arautu, antolatu eta kudeatzeko helburua betetzeari begirako neurrien garapenean oinarritzen da Basoak Erregulatu, Antolatu eta Kudeatzeko 172400 Programa, ingurumen, babes, gizarte, ekologia eta ekonomia eginkizunak bermatzeko. Horrek guztiak berekin dakar baso suteak prebenitzea, masen indar begetatiboa mantentzea, kanpoko eragile eta fenomeno kaltegarrien aurrean babestea eta baso jabetza publikoa sendotzea, bai azalerari dagokionez, bai baliabideen erabilerari eta aprobetxamenduei dagokienez

Helburu horiek erdiesteko, Nekazaritza Sailak, programa horren bidez, honako ekintza hauek gauzatuko ditu:

1. Arabako baso masen osasun egoeraren eta indar begetatiboaren diagnostikoa egitea, betiere indarrean dagoen legediaren esparruan aplikatu beharreko neurri zehatzak ezarrita.
2. Pinu beldarraren kontrako tratamenduak egitea eta Neiker Tecnaliarekin lankidetzan aritzea esperimentazio saiakuntzak egiteko orduan, pinuen azikulen bandei aurre egingo dieten tratamendu berriak ikertzeko.
3. Baso Laguntzen Planeko dirulaguntzen deialdia egitea eta dirulaguntzak ematea, bai onura publikoko mendien titular diren entitate publikoei, bai mendi partikularren titular diren pertsona fisikoei, baso masak, tresnak eta azpiegiturak mantentzeko eta hobetzeko inbertsioak egin ditzaten, honako eremu hauetan:
 - Basotzea eta baso eremuak sortzea
 - Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea.
 - Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea
 - Baso ekosistemen egokitze gaitasuna eta ingurumen balioa gehitzeko inbertsioak

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 40 AGRICULTURA

Programa: 172400 REGULACIÓN,
ORDENACIÓN Y GESTIÓN
FORESTAL

Regulación, Ordenación y Gestión Forestal se basa en el desarrollo de medidas orientadas al cumplimiento del objetivo de regular, ordenar y gestionar adecuadamente el dominio público forestal, sus aprovechamientos, usos e infraestructuras, bajo criterios de sostenibilidad, para garantizar funciones ambientales, protectoras, sociales, ecológicas y económicas. Implica prevenir incendios forestales y mantenimiento del vigor vegetativo de las masas, su defensa ante agentes y fenómenos nocivos externos y la consolidación de la propiedad pública forestal, tanto en su superficie como en los usos y aprovechamientos de sus recursos.

Para la consecución de este objetivo el Departamento de Agricultura a través de este programa desarrollará las siguientes actuaciones:

1. Realización de un diagnóstico del estado sanitario y vigor vegetativo de las masas forestales en Álava, con medidas concretas a aplicar en el marco de la legislación vigente.
2. Realización de tratamientos ante la procesionaria y colaboración con Neiker Tecnalia en el desarrollo de ensayos de experimentación al objeto de investigar nuevos tratamiento que combatan las bandas de las acículas de los pinos.
3. Convocar y conceder subvenciones del Plan de Ayudas Forestales, tanto a entidades públicas titulares de Montes de Utilidad Pública como a personas físicas titulares de montes particulares para que realicen inversiones de mantenimiento y mejora de las masas, instrumentos e infraestructuras forestales, en las siguientes áreas
 - Forestación y creación de superficies forestales.
 - Prevención de los daños causados a los bosques por incendios, desastres naturales y catástrofes.
 - Reparación de los daños causados a los bosques por incendios, desastres naturales y catástrofes.
 - Inversiones para incrementar la capacidad de adaptación y el valor medioambiental de los

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 40 NEKAZARITZA

Programa: 172400 BASOEN ARAUTZE,
ANTOLAMENDUA ETA
KUDEAKETA

- Basoko teknologietan inbertitzea eta basoak eraldatzeko, mobilizatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak egitea.
- Baso sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegiturretan inbertsioak egitea

4. Baso tratamendu prebentiboak egitea (inausketak, soilketak, sastrakak kentzea, hobekuntzak, etab.) baso suteen aurrean erregaitasun handiko lekuetan, aldi berean mendietako bazkatzeko azalera handituz, horrek abeltzaintza estentsiboa sustatuko baitu.

5. Onura publikoko mendietara sartzeko azpiegiturak egokitzea eta hobetzea, makina astunen bidez.

6. Mugaketak eta mugarriak ezartzeko proiektuak gauzatzea, basoaren jabetza publikoa defendatzeko.

7. Basogintzako esku hartzeak eta, oro har, baso kudeaketa jasangarriko jarduketak Arabako Foru Aldundiaren ondare mendietan.

8. Arabako Lurralde Historikoko baso erreserbetan esku hartzea.

9. Basogintzako esku hartzeak eta landaketak Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako kontzejuen artean partzuergoan dauden mendietan, baso ekintzak landa gizarte osoarekin duen lotura indartzeko.

10. Landaketak edo leheneratze lanak degradatutako eremuetan.

11. Lurraldeko baso pisten inbentarioa.

Helburu hori lortzeko eta jarduerak gauzatzeko, Nekazaritza Sailak Mendi Zerbitzuari atxikitako teknikariak eta administrariak ditu, bai eta programa honi atxikitako partidetan agertzen diren aurrekontu kredituak eduki ere.

Genero ikuspegiaren inpaktuari dagokionez, adierazi behar da, alde batetik, basogintzaren arloan izapidetzen diren kontratu guztietan

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 40 AGRICULTURA

Programa: 172400 REGULACIÓN,
ORDENACIÓN Y GESTIÓN
FORESTAL

ecosistemas forestales.

- Inversiones en tecnologías forestales y en transformación, movilización y comercialización forestales
- Inversiones en infraestructuras para el desarrollo, modernización o adaptación del sector Forestal.

4. Realización de tratamientos selvícolas de carácter preventivo (podas, clareos, desbroces, resalveos, etc.) ante incendios forestales en lugares de acumulación de alta combustibilidad, aumentando a su vez la superficie pastable de los montes, y lo que fomentará la ganadería en régimen extensivo.

5. Acondicionamiento y mejora, mediante maquinaria pesada, de las infraestructuras de acceso a los diferentes montes de utilidad pública.

6. Ejecución de proyectos de deslindes y amojonamientos para la defensa de la propiedad pública forestal.

7. Intervenciones selvícolas y actuaciones en general de gestión forestal sostenible en montes patrimoniales de la Diputación Foral de Álava

8. Intervenciones en Reservas Forestales Territorio Histórico de Álava

9. Intervenciones selvícolas y plantaciones en montes consorciados entre la Diputación Foral de Álava y los Concejos alaveses, potenciando así el vínculo de la acción forestal con el conjunto de la sociedad rural.

10. Plantaciones y/o labores de restauración de Áreas degradadas.

11. Inventario de pistas forestales del Territorio.

Para conseguir este objetivo y ejercer estas actuaciones, el Departamento de Agricultura cuenta con personal técnico y Administrativo adscrito al Servicio de Montes y con los créditos presupuestarios que figuran en las partidas adscritas a este programa

En cuanto al impacto en perspectiva de género, señalar, por un lado, que en todos los contratos que se tramitan en materia forestal se incluyen

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 40 NEKAZARITZA

Programa: 172400 BASOEN ARAUTZE,
ANTOLAMENDUA ETA
KUDEAKETA

klausula sozialak eta genero berdintasunekoak sartzen direla, eta, bestetik, basogintzako laguntzen planean dagoeneko sartu direla sektore horretan dauden desberdintasunak zuzentzeko neurriak.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

1. Basoen erregulazioa, antolamendua eta kudeaketa
 - 1.1. Diagnostikoak egin eta tratamendu sanitarioak egitea:
 - 1.1.1. Dianostikatutako azalera (ha): 1.866,73
 - 1.1.2. Tratatutako baso azalera (ha): 733,63
 - 1.2. Basogintzarako laguntzak izapidetzea
 - 1.2.1. Mendi publikoak basotezeko laguntzak (8.1): 19
 - 1.2.2. Mendi partikularrak basotzeko (8.1): 65
 - 1.2.3. Kalteak, suteak eta bestelako natur hondamendiak prebenitzeko laguntzak (mendi publikoak) (8.3): 31
 - 1.2.4. Kalteak, suteak eta bestelako natur hondamendiak prebenitzeko laguntzak (mendi partikularrak) (8.3): 104
 - 1.2.5. Mendi publikoetan izandako kalteak konpontzeko laguntzak (8.4): 1
 - 1.2.6. Mendi partikularretan izandako kalteak konpontzeko laguntzak (8.4): 4
 - 1.2.7. Mendi publikoen egokitze gaitasuna eta ingurumen balioa handitzeko laguntzak (8.5): 23
 - 1.2.8. Baso teknologian, eraldaketan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzeko laguntzak (mendi publikoak): 0
 - 1.2.9. Baso teknologian, eraldaketan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzeko laguntzak (mendi partikularrak): 36
 - 1.2.10. Baso sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretarako laguntzak: 82

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 40 AGRICULTURA

Programa: 172400 REGULACIÓN,
ORDENACIÓN Y GESTIÓN
FORESTAL

cláusulas sociales y de igualdad de género y, por otro, que en el plan de ayudas forestal ya se han incluido medidas correctoras de las desigualdades existentes en este sector.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

1. Regulación, Ordenación, Gestión Forestal
 - 1.1. Diagnosticar y Realizar Tratamientos Sanitarios
 - 1.1.1. Superficie diagnosticada (ha): 1.866,73
 - 1.1.2. Superficie Forestal Tratada (ha): 733,63
 - 1.2. Tramitar Ayudas Forestales
 - 1.2.1. Ayudas a la Forestación en Montes Públicos (8.1): 19
 - 1.2.2. Ayudas a la Forestación en Montes Particulares (8.1): 65
 - 1.2.3. Ayudas Prevención Daños Incendios y Otras Catástrofes Naturales (Montes Públicos) (8.3): 31
 - 1.2.4. Ayudas a la Prevención de Daños Incendios y Otras Catástrofes Naturales (Montes Particulares) (8.3): 104
 - 1.2.5. Ayudas Reparación Daños Causados en Montes Públicos (8.4): 1
 - 1.2.6. Ayudas Reparación Daños Causados en Montes Particulares (8.4): 4
 - 1.2.7. Ayudas Incremento de Capacidad de Adaptación y Valor Medioambiental en Montes Públicos (8.5): 23
 - 1.2.8. Ayudas para Inversiones en Tecnología Forestal, Transformación, Movilización y Comercialización (Montes Públicos): 0
 - 1.2.9. Ayudas para Inversiones en Tecnología Forestal, Transformación, Movilización y Comercialización (Montes Particulares): 36
 - 1.2.10. Ayudas a Infraestructuras para Desarrollo, Modernización o Adaptación del Sector Forestal: 82

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 40 NEKAZARITZA

Programa: 172400 BASOEN ARAUTZE,
ANTOLAMENDUA ETA
KUDEAKETA

- 1.2.11. Basoa zaintzeko laguntzak (publikoak): 3
- 1.3. Prebentziozko tratamendu oihandarrak egitea
 - 1.3.1. Sasiz hustutako eta jorratutako azalera (hektareak): 202,5
- 1.4. Erabilera publikoko mendietara iristeko azpiegiturak atondu eta hobetzea
 - 1.4.1. Erabilera publikoko mendietan atondutako tartek: 60,26
- 1.5. Mugatze eta mugarritzatze proiektuak egitea
 - 1.5.1. Mendi mugaketa onartuak: 7
- 1.6. Arabako mendiak modu jasangarrian kudeatzea
 - 1.6.1. Arabako Foru Aldundiaren ondare mendietan jorratutako azalera (hektareak): 124
 - 1.6.2. Arabako baso erreserbetan jorratutako azalera (hektareak): 2,5
 - 1.6.3. Partzuergoko mendietan egindako esku hartzeen eta jarduketan sortak: 38
 - 1.6.4. Partzuergoko mendietan egindako esku hartzeen eta jarduketan sortak: 331,5
- 1.7. Lurraldeko baso-pisten inbentarioa (inbentariatutako pisten km): 5.386,49

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 40 AGRICULTURA

Programa: 172400 REGULACIÓN,
ORDENACIÓN Y GESTIÓN
FORESTAL

- 1.2.11. Ayudas Conservación Forestal (Públicos): 3
- 1.3. Realizar Tratamientos Selvícolas Preventivos
 - 1.3.1. Superficie Desbrozada e Intervenido Selvícolamente (Hectáreas): 202,5
- 1.4. Acondicionar y Mejorar las Infraestructuras de Acceso a Montes de Utilidad Pública.
 - 1.4.1. Tramos Acondicionados en Montes de Utilidad Pública (Km): 60,26
- 1.5. Ejecutar Proyectos de Deslinde y Amojonamientos
 - 1.5.1. Deslindes de Montes Aprobados: 7
- 1.6. Gestionar de Forma Sostenible los Montes de Álava
 - 1.6.1. Superficie Intervenido en Montes Patrimoniales de la Diputación Foral de Álava (Hectáreas): 124
 - 1.6.2. Superficie Intervenido en Reservas Forestales de Álava (Hectáreas): 2,5
 - 1.6.3. Lotes de Intervención y Actuaciones en Montes Consorciados (número): 38
 - 1.6.4. Lotes de Intervención y Actuaciones en Montes Consorciados (superficie ha): 331,5
- 1.7. Inventario de pistas forestales del Territorio (km pistas inventariadas): 5.386,49